

**MEMORIA**

**2022**

**EUSKARA**

**ARLOA**

# AURKIBIDEA

## 00

### ANTOLAKETA OROKORRA

1. Euskara Arloaren planak	6
2. Batzorde Aholkulariak	7
3. Euskara Arloaren antolaketa	8
4. Euskara Arloaren aurrekontua	9
5. Kalitatea hobetzeko tresnak	10

## 01

### BARNE NORMALIZAZIOA

1. Kudeaketa-plana	12
2. Saisetako planak	13
3. Dekretua landu eta aplikagarri egin	14
4. Hizkuntza irizpideak / Erregelamendua	15
5. Lankidetzeta beste erakunde batzuekin	16
6. Lan-mahaia	17
7. Komunikazioak sailetan	18
8. Jendaurreko ekitaldiak	19
9. Jabari Publikoaren erabilera irizpideak	20
10. Lanpostuei hizkuntza ekaskizuna jarri	21
11. Langileen eskolaratzea	22
12. HE akreditazio probak	23
13. Langileen harrera	24
14. Zuzenketa-aholkularitza	25
15. Trebakuntza saioak	26
16. Euskararen inguruko festak Udaletxean	27
17. Baliabide informatikoak	28
18. Kexak eta intzidentziak	29
19. Kontratuen jarraipena	30
20. Kontratu txikien jarraipena	31
21. Dirulaguntzen jarraipena	32
22. Ordenantzaren jarraipena	33
23. ELE eragin linguistikaoren ebaluazioa	34
24. Bikain kanpo ebaluazioan 2022	35
25. Ekitaldien jarraipena	36



# AURKIBIDEA

## 02

### EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA

1.Zorionak diptikoa	38
2.Euskarazko produktuen katalogoa	39
3.HAZI HEZI aldizkariaren banaketa	40
4.Infografia <i>Familia hizkuntza Ume eleanitzak</i>	41
5.HH eta LHko ikastetxeekin lankidetza bilerak	42
6.DBH eta Batxilergoko ikastetxeekin lankidetza bilerak	43
7.Gu ere bertsoan	44
8.Jira bueltan materialaren lanketa	45
9.Musikala	46
10.Euskara Zine Aretoetara 2021-2022	47
11.Ongi Etorri Euskarara	48
12.Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetza bilerak	49
13. <i>Txikitasunean haundi</i> motibazio saioak DBH1	50
14.Eusliderrak	51
15. <i>BagaBigaHiga</i> emanaldia	52
16.Arrateko jarduerak DBH2	53
17.Motibazio saioak Lanbide Heziketa	54
18.D eredu Lanbide Heziketan	55
19.Uler-saioak Debarrena Integra / Bat Eginez	56
20.Euskara saioak Lanbide Heziketan	57
21.Euskaltegien lan-mahaia	58
22. <i>Gurasoak ere eskolara</i> egitasmoa 2022-2023	59
23.Euskaltegien lehiaketa: <i>Gaizki-ulertu lehiaketa</i>	60
24.Multikirolak 2021-2022	61
25.Transmisio Mintegia	62
26.Merkataritza lan-mahaia	63
27. <i>Eskatu euskaraz eskaini euskara</i> komunikazio kanpaina	64
28.UEU dirulaguntza deialdia	65
29.Euskara dirulaguntza izendunak	66
30.Dirulaguntza errotuluak euskaraz	68
31.eibarko euskara .eus	69
	70

# AURKIBIDEA

## 03

### EIBARREN AKEBAI

1. Akekideen batzarra	71
2. Ekipoa	72
3. Super Akeak	73
4. Irakasleentzako motibazio saioak	74
5. Kirol klubentzako motibazio saioak	75
6. Hamaika berbaldi	76
7. Hizkuntza-erabileraren kale neurketa	77
8. Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina	78
9. Hizkuntza eskubideen ataria	79
10. Euskaraldia	80
11. Euskararen astea	82
12. <i>Euskara Eibartar guztiona</i> Bandoa	83
13. Korrika	84
14. Tantanez tantan	85

## 04

### UDAL EUSKALTEGIA

1. Euskaltegiko plantila	87
2. Euskaltegiaren eskaintza	88
3. Matrikula epeak eta egutegia	89
4. Tasak eta tarifa bereziak	90
5. Taldeak, orduak eta ikasle kopurua	91
6. Ikaslearen profila	92
7. HABEren aztertzaileak	93
8. Formazioa	94
9. Kanpo ekintzak	95
10. Liburutegi zerbitzua	97
11. Egiatzatze gintza	98

# ANTOLAKETA OROKORRA

## EUSKARA ARLOAREN PLANAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloak honako plan hauek ditu indarrean:

- ESEP Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana 2018-2022
- Barne Erabilera Plana 2018-2022
- Eibarko Hiria, Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025 (AKEBAI)
- Udal Euskaltegiaren 2022-2023 ikasturteko plana



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Euskara Arloaren aurrekontu osoa

**BALORAZIOA:**

Euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzaldia 2018ko urriaren 29an eman du ontzat Udalbatzak. ESEP plangintzaldi berria euskara batzordean aurkeztu eta ontzat eman da. ESEPen kasuan ez da balorazio berezirik egin, AKEBAI martxan jartzeko egin zelako.

Udal euskaltegiak ikasturtekako plana eta memoria egiten du

## BATZORDE AHOLKULARIAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloak indarrean dituen planen jarraipena bi batzorde aholkularitan egiten da:

**Euskara Batzordea:**

- Presidente, PSE-EEko zinegotzia.
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Udal Euskaltegiko zuzendaria
- Idazkaria, Euskara Arloko zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

ESEP eta AKEBAko gaien jarraipena egiten da. Udal Euskaltegiaren funtzionamenduaren jarraipena ere egiten da.

**ENBA:**

- Batzordeburua, PSE-EEko zinegotzia
- PSE-EEko zinegotzi bat.
- EH Bilduko zinegotzi bat
- EAJko zinegotzi bat
- Irabaziko zinegotzi bat/ Elkarrekin Eibar/Podemos
- Langileen batzordearen ordezkaria
- Langileria eta Antolamendu saileko arduraduna
- Hizkuntza normalizatzailea
- Idazkaria, Euskara Arloko Zuzendaria

Bilera hilean behin egiten da.

Barne Erabilera planaren jarraipena egiten da.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak eta zinegotzien dietak

**BALORAZIOA:**

**Euskara Batzordea:** 10 batzorde egin dira, 48 gai landu dira.

**ENBA:** 8 batzorde egin dira, 28 gai landu dira.



## EUSKARA ARLOAREN ANTOLAKETA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 11 lagun daude.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** 984.837 €

**BALORAZIOA:**

Ohiko plantilaz gain, Udal Euskaltegirako 4 irakasle gehiago kontratatu behar izan dira aldi baterako.

## EUSKARA ARLOAREN AURREKONTUA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa bi zerbitzutan banatuta dago: Euskara Zerbitzua eta Udal Euskaltegia. Guztira 11 lagun daude.



**EPEA:** 2022


**GASTUA:**

	DIRU-SARRERAK	GASTUAK
<b>EUSKARA ARLOA</b>	<b>325.476,79 €</b>	<b>984.837,14€</b>
Euskara Zerbitzua	8.295,00 €	507.992,70 €
Euskaltegia	317.181,79 €	476.844,44€

## KALITATEA HOBETZEKO TRESNAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara Arloa (Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua) etengabe ari da kalitatea hobetzen, horretarako hainbat lan egin ditu urtean zehar:

- **Langileen etengabeko formazioa:** eguneratzeko eta udaleko gainerako zerbitzuei, herritarrei eta euskaltegiko ikasleei zerbitzu ona eman ahal izateko.
- **Lankidetzak:** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika sailburuordetzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundian Udalekin egitasmoaren barruan lankidetzan jarduten da.
- **Euskaltegian Curriculuma:** HABEren aginduari jarraituz Euskaltegiak curriculum berria diseinatu du eta ondoren HABEren oniritzia jaso du. Hala ere, hori hobetzen jarraituko du.
- **Zerbitzuen Karta:** Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak 2018tik zerbitzuen kartak egin dituzte. Horietan eskaintzen diren zerbitzuen berri ematen die herritarrei. Gainera, zerbitzu horiek aurrera eramateko konpromiso batzuk hartu dira kalitatea oinarri direla. Konpromiso horien betetze-maila, aldiro-aldiro neurtuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.



EPEA: 2022






# BARNE NORMALIZAZIOA

## KUDEAKETA-PLANA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokion 2022ko kudeaketa-plana.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Zerbitzuez gain, 8 helburu izar edo proiektu identifikatu genituen:


- Dekretua aplikagarri egiteko eginbeharrak aztertu eta betetze bidean jarri
- Dekretuaren lanketatik eratorritako aldaketak eta egokitzapenak tresnetara eraman (hizkuntza irizpideetara)
- Kontratuetan, dirulaguntzetan, emakidetan eta espazio publikoaren erabileran hizkuntza irizpideak sartu eta jarraipena egin
- Euskarazko bertsioen erabilera sustatu
- Protokoloa betetzeko aliantzak bilatu eta betetzeko modua aztertu
- Kirol Patronatua
- Hizkuntza eskakizunen berrikusketa egin
- ELE egin

Helburu horietara bideratutako ekintza gehienak egin dira, bi helburuetan izan ezik. Kirol patronatuan ez da ez planik ez sentsibilizazio saiorik egin, 2023an udalean integratzeko asmoa betetzeko beste lehentasun batzuk izan direlako. Ez da hizkuntza eskakizunen berrikusketa egin, oraindik lanpostuen balorazioa egiteko deskribatutako lanpostuen funtzioak ez direlako ontzat eman.

Bestalde, urte hasieran aurreikusi ez zen proiektu bat burutu da: Bikain ziurtagiria lortzeko ebaluazioan parte hartzea.

## SAILETAKO PLANAK

**DESKRIBAPENA:** Sailez sail euskara plantxoak edo mikroplanak egin eta horietan jarritako helburuak lortzeko ekintzak zehaztu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Sailetako 2021eko mikroplanen balorazioa egiteko bilerak egin dira ordezkariarekin (lan mahaiko kidea) eta zenbait kasutan baita buruarekin ere. Aurreko urteko helburuei (lan-hizkuntza) gehitu zaizkie beste helburu batzuk, esaterako dirulaguntzetako hizkuntza irizpideak egokitu eta berritzea.

## DEKRETUA LANDU ETA APLIKAGARRI EGIN

**DESKRIBAPENA:** Udalekin lan-taldean 179/2019 Dekretua lantzen ari gara, nola aplikatu aztertzeke.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

Aurtengo urtean ere Dekretua lantzen eta aztertzen jarraitu dugu, eta praktika onak partekatzen. 2022an egindako galdetegietan identifikatutako arloen inguruko saioak egin ditugu: dirulaguntzak, euskara lan hizkuntza, harrera protokoloa, herritarren hizkuntza hautua, hizkuntza teknologiak, itzulpenen arrazionalizazioa, kontratazioak eta hizkuntza betebeharrak.

Saioetan jasotako informazioa baliagarri izan zaigu hobetzeko arloak identifikatzeko. Aurrerapauso batzuk egin dira inprimakien bi bertsio egiteko asmoan (euskara hutsezkoa eta ele bietakoa), dirulaguntza oinarrietan hizkuntza irizpideak egokitu dira, eta testuak zein hizkuntzatan egin behar diren aztertu da eta taula bat (Nora nola) sortu da. Beste arlo batzuk oraindik ere jorratzeko dauzkagu: kontratuetako hizkuntza irizpideak, hizkuntza hautua jasotzeko eremua...

## HIZKUNTZA IRIZPIDEAK/ERREGELAMENDUA

**DESKRIBAPENA:** Dekretua lantzeko Udalekineko taldean egindakoak, aztertutakoak, erabakitakoak kontuan hartuta Udal irizpideak egokitu, aldatu, hobetu eta komunikatu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udal-irizpideak ez dira aldatu, baina Udalekin jasotako informazioa erabilia, zenbait irizpide landu ditugu.

Dirulaguntzetako irizpideak aztertu eta hobetu ditugu, diruz lagundutako jarduerarekin egokiagoak eta zehatzagoak izan daitezzen.

Itzulpenetarako irizpideei dagokienez, beste udal eta erakunde batzuetakoak aztertu ditugu, eta taula bat sortu dugu testuen hizkuntza nola kudeatu behar den azaltzeko, hau da, zein hizkuntzatan eta nork sortu behar dituen testuak, betiere kontuan hartuta hartzailea eta testuaren zailtasuna.

Bestalde, identifikatu ditugu zein arlotan zehaztu behar ditugun hobeto (beste erakunde batzuekiko harremanetan euskarak zer leku izan behar duen, euskarazko ataletarako hizkuntza-irizpideak, prozedura administratiboak nola izapidetu).

Edonola ere, 2023an egin behar dugun plan estrategiko berrirako ezinbeste eginbeharretako bat da hizkuntza-irizpideak zehaztea eta metodologia berriaren arabera (Kemen) antolatzea.





## LANKIDETZA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

**DESKRIBAPENA:** Erabilera plana gauzatzeko ezinbestekoak dira beste erakunde batzuekin ditugun harremanak, esperientziak partekatzeko, besteen praktikak ezagutzeko eta zenbat gai elkarrekin lantzeko.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udalekin Gipuzkoako udaletako Euskara zerbitzuen taldean parte hartu. Egin ditugun mintegietan praktikak partekatu ditugu hainbat gairen inguruan: hizkuntza-teknologiak, herritarren hizkuntza-hautua, itzulpenak murrizteko neurriak, harrera-protokoloa, hizkuntza-irizpideak kontratueta eta dirulaguntzetan, besteak beste.

Parte hartu dugu, halaber, Bikain euskararen erabilera eta kudeaketa ziurtagiria eskatu duten beste erakunde batzuk ebaluatzen.

## LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Udal-sailetako ordezkariak osatutako mahai teknikoa da. Helburua: Euskara planaren garapenaren jarraipena egitea sailka; hartu beharreko neurriak proposatzea, lehentasunak zehaztea, eta aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak adostea, ENBARI proposatzeko.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne-baliabideak

**BALORAZIOA:** Hauek dira mahaiaren partaidea duten sailak: Obrak, Liburutegia, Pertsonala eta Antolamendua, Udaltzaingoa, Gizartekintza, Hirigintza, Kontuhartzailtza, Idazkaritza, Kultura, Alkatetza, Zerbitzuak, Euskaltegia eta Euskara, Brigada eta Musika eskola. Zerbitzu batzuetako ordezkariak ere aldatu dira.

Bost batzar egin dira urtean zehar, eta asistentzia % 56koa izan da.

Aurten, hauek izan dira gaiak: sailetako mikroplanak, Bikain ziurtagiria, plangintzaldiaren ebaluazioa, Korrika eta Euskaraldia.

## KOMUNIKAZIOAK SAILETAN

**DESKRIBAPENA:** Batzarrak egin dira sailetako langileekin edo horien ordezkariekin euskararen erabilera normalizatzeko planarekin lotutako gaien berri emateko.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2022ko udazkenean egin dira komunikazioak sail eta zerbitzuetan. Honako sail hauetako langile eta teknikariek izan gara: Hirigintza, Kontuhartzailletza, Diruzaintza, Idazkaritza, Atezaintza, Obrak, langileria eta antolaketa, Pegora, Informatika, Zerbitzuak, Gizartekintza, Liburutegia, Garapen ekonomikoa, Andretxea, Udaltzaingoa eta Brigada.

Cuztira 120 lagun inguruk jaso dituzte azalpenak.

Besteak beste, gai hauen inguruan eman zaizkie azalpenak: Bikain kanpo ebaluazioa eta Euskaraldia.

## JENDAUURREKO EKITALDIAK

**DESKRIBAPENA:** Jarduera publikoetan euskararen erabilera areagotzeko aliantzak bilatu dira eta jendaurreko ekitaldietarako protokoloa betetzeko modua aztertu da.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Euskara sailetik egindako proposamena aztertu zen Komunikazio lantaldean, eta zenbait zuzenketa egin ziren eta aurreko protokolo bestelako informazioa gehitu zen. Gaztelaniara itzuli eta ordezkari politiko batzuei pasa zitzaien oniritzia emateko. Ekainaren 28ko datarekin egin zen alkatetzaren dekretu berria. Zinegotzi guztiei bidali zitzaien, ENBAn azaldu zen uztailleko batzordean eta langile guztiei komunikatu zitzaien e-mailez eta intranetaren bidez.

Ez da jarraipen sistematizatu egin. Zenbaitetan, ordea, galdetu da alkatetzan egindakoaren inguruan.

## JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA IRIZPIDEAK

**DESKRIBAPENA:** Jabari publikoaren okupazioa arautzen duten ordenantzetan eta okupazio horien baimen-eskaeretan hizkuntza-irizpideak sartzea proposatu dugu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Euskara zerbitzuak, 179/2019 dekretuak dioena betetzeko, **Bide publikoa mahai eta aulkiekin, saltzeko produktuekin edo elementu lagungarriekin okupatu eta erabiltzeari buruzko udal-ordenantzan sartu beharreko hizkuntza-irizpideen gaineko proposamen teknikoa** dokumentua aurkeztu zuen ENBAn eta batzordekideek ontzat eman zuten. Hizkuntza-irizpideak txertatzeko proposamena eta diktamena Hirigintza Batzordera bidali zen irailean.

## LANPOSTUEI HIZKUNTZA ESKAKIZUNA JARRI

**DESKRIBAPENA:** Udaleko lanpostuei, brigadakoei izan ezik, egiteko eta funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna ezarri behar zaie. Horretarako protokolo bat dago onartua.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

2022an 6 lanposturi ezarri zaie Hizkuntza Eskakizuna.

## LANGILEEN ESKOLARATZEA

**DESKRIBAPENA:** Udaletxeko langileek eta fundazio eta patronatoetakoek euskalduntze ikastaroak IVAPen edo udalaren kontura egiteko aukera izaten dute. Horretarako ENBAn onartutako araudia bete behar da.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak


**BALORAZIOA:**

2021-2022 ikasturtean 9 langile matrikulatu dira IVAPen kontura. 5 Eibarko Udal Euskaltegian, 1 Eibarko AEKn eta beste 3rak kanpoko euskaltegietan.

Ikasle horien jarraipena egin da, eta orokorrean, langileen jarrera/aprobetxamendua ona izan da.

## HE AKREDITAZIO PROBAK

**DESKRIBAPENA:** Udaletxeko eta fundazio eta patronatoetako langileak IVAPek egiten dituen hizkuntza probetara joateko tramitazioa egiten da urtean bi deialditan.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

2022ko lehenengo deialdia:

Lehenengo deialdian izena emandakoak 10 dira. Horietatik 9 langile aurkeztu dira emaitzak honako hauek dira:

- GAI: 2
- EZ GAI: 7

2022ko bigarren deialdia:

11 eskaera bidali dira IVAPera. Horietatik 10 langile aurkeztu dira eta emaitzak honako hauek izan dira:

- GAI: 2
- EZ GAI: 8



## LANGILEEN HARRERA

**DESKRIBAPENA:** Langile berri bat udalerako lanean hasten denean, Hizkuntzak erabiltzeko udal irizpideak liburuxka ematen zaio eta azaldu egiten zaio zeintzuk diren udalean lanean diharduen bitartean hizkuntzari dagokionean izan behar duen jokabidea.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Aurreko urteotan bezala, harrera egin zaie langile hasi berriei: euskara-planaren berri eman, eta udal-irizpideak banatu eta azaldu zaizkie. Guztira, 17 langile berriekin hitz egin dugu, batzuekin banaka eta beste batzuekin taldeka.

## ZUZENKETA-AHOLKULARITZA

**DESKRIBAPENA:** Udal-sailtako langileei testuak euskaraz sortzen laguntzen diegu, haiek idatzitakoak zuzentzen ditugu eta euskaraz lan egiteko lagungarriak diren baliabideen berri ematen diegu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

### BALORAZIOA:

#### Zuzenketa zerbitzua

Testuak zuzendu edo itzultzen laguntzeko egindako eskaerak 242 izan dira; 13 kanpokoak, eta gainerakoak barruko langileenak.

Zuzenketa: % 91,4

Itzulpenak: % 7

Zalantzak argitzeko egindako eskaerak: % 1,6

Aurten, zertxobait gehiago izan dira itzulpen-eskaerak eta itzulitako hitz kopurua ia bikoiztu egin da.

18 sail ezberdinetako testuak gainbegiratu dira.

#### Aholkularitza eta euskaraz lan egiteko baliabideen gaineko informazioa

e-mail bitartez edo Intranetean jarrita eskuratu zaie langileei astelehenetako Jantzi euskaraz di-da batean izeneko postak: hizkuntzaren gaineko zalantzak, ohiko akatsak, ariketa errazak, Interneten aurki daitezkeenak, euskarazko ekitaldien agenda, hizkuntza-irizpideak...

Horiez gain, euskaltegian antolatzen diren ikastaro eta bestelako ekitaldien gaineko informazioa eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdien ingurukoak ere jakinarazi zaizkie langileei.

## TREBAKUNTZA SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Euskara maila hobetzeko saioak egiten dira langile eta ordezkari politikoekin, laneko jardunean euskara gehiago egiteko helburuarekin.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

### **BALORAZIOA:**

- Ordezkarik politikoak

Zinegotzi bako hartu dituzte trebakuntza-saioak bakarka. Astean bi saio egin dituzte, guztira 42 saio, ordubete ingurukoak. Helburua izan da jarria hobetzea, ulermena handitzea eta euskalkira hurbiltzea.

Zinegotzi bako hartu dituzte trebakuntza-saioak bakarka. Astean bi saio egin dituzte, guztira 42 saio, ordubete ingurukoak. Helburua izan da jarria hobetzea, ulermena handitzea eta euskalkira hurbiltzea.

- Sindikatu bateko ordezkariak

Apirilera arte 2 ordezkari hartu dituzte saioak binaka (18 saio). Hortik aurrera, bakarra ibili da (bestea bajan). Tarte honetan, 22 saio izan dira. Egiten duten lan sindikalarekin lotutako gaiak landu ditugu nagusiki.

- Gizartekintzako administrariak

Irailean hasteko asmoa bazegoen arren, urrian ekin diogu eta lau saio egin ditugu. Helburua da egin behar izaten dituzten idatziak (asistentzia eta dirulaguntzen gaineko frogagiriak eta ofizio eta gutun laburrak) aztertzea, zuzentzea eta hobetzea. Lau laguneko taldea da, eta ordubeteko saioak egin ditugu. 2023an jarraipena izango du.

## EUSKARAREN INGURUKO FESTAK UDALETXEAN

**DESKRIBAPENA:** Korrika eta Euskaraldia izan ditugu aurten.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udalak *Korrikan* parte hartu du. Laguntza batu da eta bi lagun izendatu dira lekukoa eramateko.

*Euskaraldia Hitzez ekiteko garaia* lelopean egin da aurten. Topaguneak egindako proposamenaren haritik, udaletxean Ariguneak identifikatzea eta izendatzea sustatu da. Informazioa eman da sailetan udazkenean egindako batzarretan, eta batzordeetara ENBAREN gonbidapena bidali da.

Gainera, udalbatzak adierazpen instituzionala egin du.

Ariguneetan jartzeko adierazgarriak banatu dira, eta Euskaraldiaren lehen egunean txapak banatu, txapa jartze kolektiboa egin eta argazkia atera da udaletxeko patioan.

Euskaraldiak iraun duen egunetan *Berbabila* lehiaketa egin dugu. 20 lagunek parte hartu dute eta saria jaso dute erantzun gehien emandakoek.

## BALIABIDE INFORMATIKOAK

**DESKRIBAPENA:** Baliabide eta tresna informatikoen euskarazko bertsioen erabilera handitzera bideratutako ekintzak egitea da helburua.

Langile berriei ekipoa irizpideetan jasotakoaren arabera jartzeko izan daitezkeen arazoak aztertu informatikarekin eta konponbidea aurkitu. Astelehenetako sentsibilizaziorako mezuetan euskarazko bertsioak erabiltzea eskatzen duten jarduerak proposatu (lehiaketa, ariketa...)



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ez dira azaroak era formalean aztertu. Informatikariekin hitz egindakoan euskarazko bertsioak ez jartzearen arrazoi orokorrak eman izan dituzte: zenbait programak azaroak ematen dituzte —data, kalkuluak...—, zenbait aplikazio gaizki ibiltzen dira euskarazko nabigatzailearekin, eguneraketekin hizkuntza aldatzea...

Astelehenetako mezuetan, ariketa bat (formulario gisa) planteatu zitzaizkien wordeko komandoen euskarazko hitzak erabiltzea eskatzen ziena. 35 lagunek egin zuten.



## KEXAK ETA INTZIDENTZIAK

**DESKRIBAPENA:** Herritarrek eta udalaren zerbitzuen hartzaileek egindako kexa eta gertatutako intzidentziei jarraipena egiten diegu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 5 intzidentzia jaso dira. Herritarren hizkuntza-eskubideak urratzeagatik jarri dira kexa guztiak.

2 intzidentzia kalean herritarrentzat jarritako kartel eta trafiko seinaleekin lotutakoak izan dira.

Beste 2k udal langileek herritarrei emandako zerbitzuarekin du zerikusia. Kasu batean gaztelaniaz erantzun zaio euskaraz hurbildu den herritarriari. Bestean, gaztelania hutsean erantzun zaio idatziz udal webgunean euskaraz egindako kexa bati.

Hizkuntza-eskubideen azken urraketa elkarte batek diruz lagundutako jarduera bat iragartzeko kartel batean gertatu da. Gaztelaniaz bakarrik iragarri da.

Horietako salaketa batzuk Astindu kanalean eta Behatokian jarri dira. Beste batzuk udalean zuzenean erregistratu dira. Guztiak bideratu dira, erantzun dira eta konpondu.



## KONTRATUEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak egiten dituen kontratuetan jartzen diren hizkuntza-irizpideen betetzearen jarraipena egiten da, kontratuaren arduradunari galdetuta jarritako irizpideen betetze-mailaren inguruan.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 72 kontratu formalizatu dira aurten, Revascon kontratuen erregistroan jasotakoaren arabera:

·Zerbitzu kontratuak: 30

Guztietan jarri dira hizkuntza-irizpideak, gehienetan, bai baldintza administratiboetan, bai teknikoetan. Batzuetan, erabilera administrazioarekin atala gehitu da, eta bertan eskatu da ahozko harremanak euskaraz izatea, ahal izanez gero, eta enpresak eman beharreko txostena euskaraz ere egitea.

·Obra kontratuak: 16

Lege aipamenaz gain, denetan aipatu dira errotulu eta oharren gaineko jarraibideak, bai eta ez betetzeen ingurukoak ere.

·Hornidura kontratuak: 18

Batzuen gaineko informaziorik ez dago (esparru akordiotik eratorriak). Gainerakoetan, gehienetan, lege aipamena egin da, eta kasu batean hornigaian jarri beharreko ohar idatzien gaineko jarraibideak ere gehitu dira.

·Pribatuak edo beste batzuk: 8

Hauen artean bi emakida daude, non jarri diren herritarrekiko harremanetako irizpideak.

Lau zerbitzu-kontraturik egin zaie jarraipena, arduradunak betetako galdetegiaren bidez. Guztietan bete dira hizkuntza-gaitasunari eta paisaiari lotutako baldintzak. Herritarrekiko harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak ere gehienetan bete dira, ez ordea guztietan. Eibar Business Market antolatu duen enpresak ez du bete gonbidatu guztiei lehen hitza euskaraz egiteko beharra. Sail antolatzailearekin harremanak euskaraz izateko eskakizunari ere ez diote beti ondo erantzun. Kasu batean txostena eskatzen zen ele bietan, baina ez dute txostenik aurkeztu. Errekerimendua egin zaio.

## KONTRATU TXIKIEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak egiten dituen kontratu txikietan jartzen diren hizkuntza-irizpideak zaintzea.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Kontratu txiki guztietan jartzen dira aurreko urtean proposatutako hizkuntza-irizpideak, hala dagokionean jardueraren hizkuntza adierazten da, eta fakturak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eskatzen dira.

Zerbitzu-kontratuak begiratu ditugu. Enpresek aurkezten duten aurrekontua edo proposamena gehienetan gaztelaniaz egoten da. Fakturen kasuan, gehienak inprimaki estandarizatu elebidunak aurkezten dituzte, baina kontzeptuan asko dira gaztelaniaz idazten dutenak.

Edonola ere, aldeak daude: euskarazko jarduerak kontratatzen direnean, ugariagoak dira euskarazko agiriak aurkezten dituztenak. Euskara, Kultura eta Gizartekintza sailtako kontratuetan ere ugariagoak dira euskarazko aurrekontu eta fakturak.

Ez diogu jarraipenik egiten bestelako hizkuntza betebeharren betetze-mailari, ez eta obra eta hornidura kontratuei ere.



## DIRULAGUNTZEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Udalak ematen dituen dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak jartzen diren jarraitzen dugu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Dirulaguntza-oinarrietan eta -deialdietan hobekuntza hauek ezarri dira:

- Izendunetan –guztira 80 inguru izan dira– lege aipamena sartu da, hizkuntza irizpide egokituagoak jarri dira (herritarrentzako jakinarazpen guztietan euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo direla jaso da, ume eta gazteentzako jarduerak euskaraz edo nagusiki euskaraz izango direla jaso da, laguntza batzuetan aipatu da aztertuko dela jarduera batzuk euskaraz egitea). Gainera, hiru elkarteri (Untzagako jubilatutxoa, Beheko tokia eta Ipuruako jubilatutxoa) proposatu zaie euskara plana egitea, betiere gure laguntzarekin. Bestalde, jarduera-txostena egokitu da, herritarrentzat antolatzen dituzten jarduerak zein hizkuntzatan izan diren jasotzeko.
- Norgehiagoka araubidez 5 dirulaguntza eman dira eta horietako hirutan ere euskararen legea sartu da eta baita errotulazioaren eta jendaurreko ekitaldien inguruko hizkuntza-irizpideak ere.
- Ebaluazio bakoiztu bidez (18 izan dira guztira), kirol taldeei jarduera arruntak antolatzeko ematen zaizkien dirulaguntzetan euskara-plana izatea eskatu zaie aurreko urtean bezala.

Zuriketa urtarilean aurkeztu behar zuten elkarteetako 5en jarduketa memoria gainbegiratu da. Bik ez dute erabili dirulaguntzarekin batera onuradunei eskaintzen zaien eredia, eta horietan ez da aipatu jarduerak zer hizkuntzatan izan diren. Beste biren kasuan ondo jaso da, bai jardueren hartzailea nor zen, bai zein hizkuntzatan izan diren jarduerak eurak eta iragartzeko erabilitako kartelak eta abar. Beste batek aurreko urteko txostena erabili du. Hartan ez zen galdetzen jardueren hartzaileez.

Ondorioak dira haurrentzako jarduerak euskaraz izan direla eta gainerako hartzaileentzat egindakoak ele bietan.



## ORDENANTZAREN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Euskararen Ordenantza du indarrean 2016ko ekainetik. Ordenantza horren betetze-mailaren jarraipena egiten da ENBA eta Euskara Batzordean. ENBAn udal barruko eta erakunde autonomoi dagokiena eta Euskara Batzordean udalerriko neurriei dagokiena

EUSKARAREN  
ORDENANTZA



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Euskararen Ordenantzan jasotako arauak betetzeko barne zein kanpo erabilera sustatzera eta bermatzera zuzendutako ekintzen eta egitasmoen gaineko jarraipena egin da, eta 2022ko memorian jaso da.

## ELE ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

**DESKRIBAPENA:** HAPOari Eragin Linguistikoaren Ebaluzioa egiteko kontaktuan izan Hirigintzako teknikariek eta unea iritsita ebaluzio egiteko prozedurari ekitea.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Bilera egin dugu Hirigintzako teknikari batekin urtarrilean. HAPOren Aurrerakina edo aurrerapen agiria jendaurrean egon da, eta herritarren proposamenak jaso, aztertu eta erantzun dira. Aurrerakina dokumentuko II. eranskinean jasota dago ELE ebaluzioari buruzkoa: HAPOrekin batera ELE egingo da. Aurretik, baina, helburuak eta irizpideak zehaztu eta onartu behar dira, plana egingo duen enpresa kontratatu, bai eta aurrerakinean dauden alternatiba guztien artetik aukera egin ere.

## BIKAIN KANPO EBALUAZIOAN 2022

**DESKRIBAPENA:** Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa egiaztatzen duen Bikain ziurtagiria eskuratzeko prozesua.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Eibarko Udalak Bikain ziurtagiria lortzeko kanpo ebaluazioan parte hartu du eta goi-mailako ziurtagiria lortu du. Erakundea ebaluatu duten ebaluatzaileek txostena egin dute, euskararen erabileran eta kudeaketan identifikatu dituzten indarguneak eta zer hobetuak jasotzen dituena.

Bestalde, euskara arloko langile bat ebaluatzaile aritu da beste erakunde batean.

## EKITALDIEN JARRAIPENA

**DESKRIBAPENA:** Herritarrentzako ekitaldien eskaintza (ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, antzerkia...) jarraitu eta ikusi zer eta zenbat egiten den euskaraz.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Erregistratu diren ekitaldien gaineko jarraipena egin da.

	EUSKARAZ
Antzerkia	%32
Hitzaldiak	%33
Ikastaro eta tailerrak	%54
Zinea	%8

# EUSKARAREN SUSTAPENERAKO EKINTZA PLANA



## ZORIONAK DIPTIKOIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarren umeak erregistratzen dituzten familiei Pegoran “Zorionak” diptikoa banatzen zaie. Bertan eredu linguistiko desberdineko gurasoei aholkuak ematen zaizkie umeekin eduki behar duten jarrerari buruzkoak.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** 2016ko aurrekontukoa 907,50€ (3.000 ale)

**BALORAZIOA:**

2022. urtean 126 ume jaio dira, 57 neska eta 69 mutil.

## EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Eibarko ikastetxeetan San Andres inguruan Euskarazko produktuen katalogoa banatzen du. Katalogo hau Euskal Herri osorako egiten da eta Eibarko udalak ale batzuk erosten ditu.



**EPEA:** 2022ko azaroa

**GASTUA:** 3.313,19 €

**BALORAZIOA:**


2.800 katalogo banatu dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta 1.700 liburu bereizgarri DBHko ikastetxeen bitartez.



## HAZI HEZI ALDIZKARIAREN BANAKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak 2 urteko umeen geletako gurasoei Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitan jasotzeko aukera ematen die. Interesatuak izena eman behar dute.

Horretaz gain, ume jaioberrira erregistratzera doazen familiek Hazi Hezi 0 alea doan jasotzen dute.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** 450€ harpidetza eta Pegoran 0 alea banatzea doan izan da

**BALORAZIOA:**

30 gurasok eman dute izena urtebeterako harpidetza doan jasotzeko. Iaz baino guraso gehiagok:

- 2 Aldatzekoak
- 5 San Andresekoak
- 2 La Sallekoak
- 20 Mogelegoak

## INFOGRAFIA *FAMILIA HIZKUNTZA UME ELEANITZAK*

**DESKRIBAPENA:** *Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua* infografia bilakatua. Paperean dagoen informazio garrantzitsua infografia bidez (animazio bideoa) ematea da helburua.

Infografia hori ikastetxeek gurasoekin egiten dituzten bilera orokorretan erabili ahal izango dute, udalaren web gunean eta ikastetxeen web eta blogetan egon daiteke ikusgai.

Whatsapp bidez banatzeko bertsio arina ere badago.

<https://www.eibar.eus/eu/bideoak/euskaratik-eleaniztasunera-infografia>



**EPEA:** 2022ko iraila-urria

**GASTUA:** 7.151,71€ 2019an egindakoa

### **BALORAZIOA:**

Ikastetxeek gustura hartu dute multimedia materiala. Bideo honen bidez gurasoek 5'an funtsezkoa den informazioa jaso ahal dute. Liburuxkaren formatoak lan handiagoa eskatzen zien irakasleei eta baita familiei ere.

Whatsapp bidez erraz banatzeko bertsioa ere egin eta zabaldu da.

## HH ETA LHKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta HH eta LHko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 7 ikastetxe daude eta denak dira mahaiko kide.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

<b>Data</b>	<b>Asistentzia</b>
2022/01/25	6 ikastetxe
2022/09/20	7 ikastetxe
2022/11/08	7 ikastetxe

## DBH ETA BATXILERGOKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara sailaren eta DBH eta Batxilergoko ikastetxeen artean egiten diren bilerak, lankidetzan hainbat egitasmo proposatzeko, sustatzeko, ebaluatzeko. Guztira 3 ikastetxe daude, eta denak dira mahaiko kide. Ikastetxe publiko bakarra dago 3 egoitzatan banatua, eta 2 kontzertatu.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:**

Aurreikusitako bilerak egin dira. Asistentzia % 100ekoa izan da.

<b>Data</b>	<b>Asistentzia</b>
2022/02/02	3 ikastetxe
2022/05/11	3 ikastetxe
2022/06/15	3 ikastetxe
2022/09/20	3 ikastetxe

## GU ERE BERTSOTAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez ikastetxe guztietan eskaintzen duen bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoa. Udalak eta ikastetxeek finantzatua. Ikastetxe gehienetan LH5 eta 6 mailetan burutzen da. Egitasmoak ikasturte osoa hartzen du, urrian hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Bertsozale lantzeko saioa astero izaten dute eskola orduetan, aste batean bertsozale elkarteko irakaslea joaten da gelara eta hurrengo astean tutorearekin lantzen dute.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** 13.132,83 €

**BALORAZIOA:** Eibarko Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe hartu dute parte. Egitasmoa 21 ikastaldetan burutu da. 493 umek landu dute bertsolaritza. Umeek bertsolaritzaren bitartez umore eta jolas giroan bertsoaren bitartez euskara eta ahozkotasuna lantzen dute. Bertsozale elkarteko irakasleak oso profesionalak dira eta umeekin duten harremana oso egokia da. Umeen bertso jaialdiak Coliseoan 4 egunetan egin dira, eta aretoa bete egin da.

## JIRA BUELTAN MATERIALAREN LANKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak ikastetxeetako HH5 mailako familiei *Badiharduguk* sortu duen kanta eta jolasen liburuxka-DVDa banatu die.

AKEBAko Transmisio mahaiak material horren lanketa egiteko eskoletako jangelen jolas orduak aprobetxatu nahi izan ditu, gune informaletan ikasgelatik at ikasleen arteko euskararen erabilera sustatzeko. Astixa Animazio Zerbitzuko begiraleek 2 saioko tailerrak eman dituzte ikastetxeetan, jangeletako hezitzaile eta HH5 mailako umeekin (5 urte) jolasak lantzeko.



**EPEA:** 2022 otsaila-apirila

**GASTUA:** 1.485 €

**BALORAZIOA:** Astixako hezitzaileak ikastetxe guztietatik pasatu dira jolasak eta abestiak irakasteko. Saioak hasi aurretik, joratu beharreko jolasen azalpenak jantokiko arduradunei banatu zaizkie beraiek aurretik ere landuta izan ditzaten.

Guztira 40 saio egin dira, eta Astixako 2 hezitzaile aritu dira zeregin horretan.

2022ko otsailaren 14tik martxoaren 4ra, astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:30era bitartean eman dira saioak. Jira Bueltan liburutik 7jolas aukeratu dira, 5 7 urteko umeentzat egokienak. Jantokiko hezitzaileak umeekin batera murgildu dira jolasetan.

Umeen harrera, orokorrean ona izan da, eta saioa aurrera joan ahala gusturago aritu dira proposatutako jolasetan.

## MUSIKALA

**DESKRIBAPENA:** Ikuskizun multi-disziplinar bat (dantza, gidoigintza, antzerkia, musika, jantzigintza, kantua, komunikazioa, kudeaketa...) antolatzeko prozesuak dakartzan onura guztiak dituen, Eibarko nerabe eta gazteen egituratze sozial eta linguistikorako tresna ezin hobe da musikala.

Eibar BHI-Isasi ikastetxean horrela ikusi dute, eta Hauspoa programaren barruan sartu dute musikala. Horrela, ikasleek euskara modu ludikoan erabiltzen dute, eremu akademikotik at, eta bide batez kohesioa eta talde identitatea indartzen da.

DBHko ikasleek urritik maiatzera bitartean antzerki, kantu eta dantza tailerretan musikala prestatu ondoren, Coliseo antzokian hainbat emanaldi burutzea da helburua. Andrea Covadonga aktore eta kantaria izan da tailer horien gidari.



**EPEA:** 2022ko maiatzaren 4an

**GASTUA:** 6.000 €

**BALORAZIOA:** 22 ikaslek hartu dute parte, 17 neska eta 5 mutil, nagusiki DBH1ekoak aritu dira musikala prestatzen, Andrea Covadongaren gidaritzapean ikastetxeko irakasleen eta guraso elkartearen laguntzaz.

## EUSKARA ZINE ARETOETARA 2021-2022

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak ikastetxeei euskarazko zine eskaintza egiten die eskola orduetan. Eskaintza hori TINKO euskara elkartearen bitartez. Udala eta ikastetxeen artean finantzatzen da. Filmak Coliseoan edo Portalean ematen dira 14:45-16:30 bitartean.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** 3.669 €

**BALORAZIOA:** TINKOk 7 filma eman ditu. Filme batzuk Coliseoan eman dira eta beste batzuk ikastetxean bertan. 2.168 ikusle izan dira. Ikastetxeka honako hau izan da filmen eskaera:

**IKASTETXEAK LH:**

- San Andres 2 filma
- Amaña 3 filma
- Urkizu 5 filma
- La Salle Isasi 6 filma
- Arrateko Andra Mari 2 filma
- Aldatze 3 filma

**IKASTETXEAK DBH**

- Eibar BHI 2 filma
- La Salle Azitain filma 1





## ONGI ETORRI EUSKARARA

**DESKRIBAPENA:** Eibarrera bizitzera etorritako atzerritarren seme-alabei euskarazko errefortzu saioak ematen zaizkie. Udalak finantzatzen du. Ordu eta laurdeneko bi saio izaten dira asteen, Indianokua gaztelekuan, eta taldea osatuz gero ikastetxean bertan. Ikasturte honetan ere ikastetxean bertan taldeak osatzea bultzatu da. Eibar BHI<sup>n</sup> hauspoa egitasmoaren barruan eskaini da.



**EPEA:** 2021-2022 / 2022-2023 ikasturteak

**GASTUA:** 13.200,58 €

**BALORAZIOA:** 2021-2022 ikasturtean 5 errefortzu-talde osatu dira. 3 talde Eibar BHI Isasin, talde 1 Eibar BHI Jardinetan eta talde 1 Gaztelekuan Aldatze eta La Salleko ikaslez osatua. Guztira 54 ikasle.

2022-2023 ikasturtean 6 talde osatu dira. 3 talde Eibar BHI Isasin, 2 talde Jardinetan eta talde 1 Gaztelekuan La Salle eta Aldetzeko ikaslez osatua. Guztira 63 ikasle

## LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEKIN LANKIDETZA BILERAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udala Lanbide Heziketako ikastetxeekin (Armeria Eskola eta UNI) eta ...eta kितto! Euskara Elkartea ere lankide delarik bilerak egiten dira elkarrekin Lanbide heziketan euskararen erabilera sustatzeko.



**DATAK:**

2022-01-25  
2022-03-08  
2022-12-14

**ASISTENTZIA:** Denok

**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Baliabide propioak.

**BALORAZIOA:** Baliagarria izan da Lanbide Heziketako zentroekin bilera bereiztuak egitea. Euren asistentzia eta inplikazioa oso ona izan da. Aukera izan dugu zentro horietarako ekintza espezifikoak diseinatzeko.



## TXIKITASUNEAN HAUNDI/MOTIBAZIO SAIOAK DBH1

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak DBH 1eko Ikastalde guztiei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du, eta Eta Kitto euskara elkarteak eskaintzen ditu. Helburua euskaraz egitera animatzea da. Tailerra ordu eta erdiko bi saioak osatzen dute.



**EPEA:** Urritik abendura bitartean egin dira saioak.

**GASTUA:** 2.642,64 €

**BALORAZIOA:** 375 ikaslek jaso dituzte motibazio saio hauek. Eibarko DBH1 maila duten ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte. Guztira 14 taldetan eman dira saioak. Orohar ikasleek saioari buruz egin duten balorazioa ona da. Balorazio guztiak taldeka HEMEN daude.

## EUSLIDERRAK

**DESKRIBAPENA:** DBHko ikastetxeekin lankidetzan EUSLIDERRAK egitasmoa jarri zen martxan 2018-2019 ikasturtean. Egitasmo horretan DBH3ko ikasleek hartzen dute parte zuzen-zuzenean. Helburua hizkuntza ohituretan eragitea da, jabeak eta ahalduzko-prozesu baten bidez.

Hiru fase ditu:

- Moskeo kanpaina
- Saiok / tailerra
- Ekintza soziala

Bi ikasturterako programa da, bi ziklo.

I. zikloko parte-hartzaile eusliderrak (boluntarioak) beraiek dira II. zikloko saiok gidatuko dituztenak.



**EPEA:** 2021-2022

**GASTUA:** 8.000€

**BALORAZIOA:** DBHko ikastetxe guztiek hartu dute parte programan. 2 ikastetxean DBH4ko ikasleak ibili dira eusliders rolean Ahize AEK-koen gidaritzapean. Ikastetxe batean DBH3koek enpresakoen eskutik jaso dute formakuntza.

Ekintza soziala ere burutu da, baina ez da egin aurreikusita zegoen bezala, 3 ikastetxeek elkarlanean antolatuta. Ikastetxe bakoitzak berea egin du.

Horrek ikusgarritasuna kendu dio.

## BAGABIGAHIGA EMANALDIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak antolatzen du DBH 4ko ikasleei musika emanaldia Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen eskutik. Eskola orduetan izaten da, Coliseoan. Udalak finantzatzen du. Helburua da euskal musika ezagutzea, zaletasuna sortzea eta euskal erreferenteak sortzea.



**EPEA:** 2022ko apirilaren 4an, 9:00 // 11:00 // 13:00

**GASTUA:** 968,00 €

**BALORAZIOA:** DBHko ikastetxe guztiek hartu zuten parte 3 emanalditan banatuta. Guztira 275 ikaslek hartu dute parte. Balorazioa oso positiboa izan da, eta ikaslejarrera oso ona.

## ARRATEKO JARDUERAK DBH2

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak DBHko Eibar BHI ikastetxearekin lankidetzan bertako DBH2ko ikasleentzako egonaldia antolatu du Arraten. Eskola mapa berriaren arabera antolatu dira ikastetxe publikoak, eta horrek eragindako egoera berrietara hobeto egokitzeko helburua ere badu egonaldiak (talde izaera, zentro desberdinetatik etorritako ikasleen arteko bizikidetzeta aberatsagoa izatea). Baina batez ere, ikastetxetik kanpo, inguru naturalean, jolas eta talde jardueren bitartez euskaraz gozatzeko aukera eskaintzea da helburua.



**EPEA:** 2022ko udaberrian

**GASTUA:** 8.255 €

**BALORAZIOA:** DBH2ko 9 talde egon dira Arraten (maiatzaren 2tik 19ra bitartean), egunean gela bat, 2 irakaslerekin eta Astixako 2 begiralerekin. Astixak dinamizatu eta koordinatu ditu eguneko jarduerak 08:30etik 17:00etara bitartean. Jardueren artean: Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa bisitatu; inguruko baserrien izenak, toponimoak, zuhaitzen izenak... ikasi; euskararekiko sentsibilizazio eta motibazioa lantzeko bertso tailerra, inguruko bertsolari gazteek emana; talde dinamikak...

Ahal izan den guztietan oinez igo dira taldeak Arratera, eta oinez jaitsi; eguraldiagatik ezinezkoa izan denetan, autobusa izan dute. Jarduerak ere kanpoan egin dira gehienetan, baina ezin izan denean, Arrateko aterpetxea erabili da.



## MOTIBAZIO SAIOAK LANBIDE HEZIKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako A eta D ereduko ikastaldeei motibazio saioak eskaintzen dizkie. Eskolan bertan eskola orduetan izaten da, Udalak finantzatzen du. Helburua da euskara ikastera animatzea da eta dakitenak erabiltzera animatzea.




**EPEA:** 2022ko iraila-urria

**GASTUA:** 4.391,00 €

**BALORAZIOA:** Lanbide Heziketako Armeria Eskolako 13 taldek eta UNiko 12 taldek jaso dute. Balorazioa orohar ona izan da. Eta interesa adierazi duten ikasleek euskaltegietara jo dute euskara ikastera. Balorazio eranskina.

## D EREDUA LANBIDE HEZIKETAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Ameria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan dihardu LHn D eredia sustatzeko.



**EPEA:** 2022ko otsaila-iraila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 2022an honako ekintzak burutu dira:

- Alkatearen gutuna D eredia gomendatuz Lanbide Heziketako ikaslegaiei eta euren familiei.
- D ereduaren aldeko diptikoa atera da ikastetxeen Ate Irekien egunetan banatzeko eta ikaslegaiei bidaltzeko
- Eta Kitton bideo erreportaia egin dute D ereduari matraikulatuta dauden ikasleen testigantzekin.

<https://www.youtube.com/watch?v=6UJcE9rE1es&t=18s>





## ULER-SAIOAK DEBABARRENA INTEGRA / BAT EGINEZ

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak Soziolingvistika Klusterra EHUrekin lankidetzan landutako Uler-saioak ikastaroa Armeria Eskola elkarteak bideratzen duen “Debabarrena Integra Bat eginez” egitasmoan txertatu du.



**EPEA:** 2022ko urria 2023ko otsaila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Udaleko euskara Zerbitzuaren eta Armeria Elkartearen arteko lankidetzaren oso ona izan da. “Uler-saioak” euskara saioetan 17 ikaslek hartu dute parte eta 9k oso ondo jarraitu dute formakuntza.

Ikasleek hasieratik jarrera ona erakutsi dute eta arrakastaz burutu dute ikastaroa.

## EUSKARA SAIOAK LANBIDE HEZIKETAN

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Lanbide Heziketako Armeria Eskola eta UNI Eibar-Ermua ikastetxeekin lankidetzan 60 orduko euskara klaseak eskaintzen ditu Erdi mailako zikloetan. Helburua euskarazko oinarritzko ezagutza jasotzea da ezer ez dakitenen kasuan. Euskara ezagutzen dutenen kasuan euskara eta lan-mundua lotzea da xedea.



**EPEA:** 2022ko urria-2023ko otsaila

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Lanbide Heziketako Armeria Eskolako Elektronika eta Telekomunikazioak taldeetakoek jaso dituzte 60 orduko euskara klaseak.

## EUSKALTEGIEN LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Euskara Zerbitzuak Udal Euskaltegiarekin eta Eibarko AEKrekin euskalduntzea sustatzeko egitasmo eta proiektuak bideratzeko lan-mahaia dinamizatzen du.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** 4 bilera egin dira:

2022/02/15, 2022/04/28, 2022/07/11 eta 2022/09/27



## GURASOAK ERE ESKOLARA EGITASMOA 2022-2023

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak, udal euskaltegiak, AEK-k eta HH eta LHko ikastetxeek lankidetzan 100 orduko euskara ikastaroak eskaini dituzte ikastetxeetan. Eskaintza ikastetxe bakoitzak egin du bere gurasoen perfila kontuan hartuta egokien iruditu zaien moduan. Hauek ere matrikularen %50 ordaindu dute ikastaroa. Astean 4 eskola ordu jasoko dituzte eta helburua euren seme-alaben euskalduntze prozesuan eurek ere euskara ikasita laguntzea da.

**Gurasoak ere eskolara 2022-2023**  
Cursos de euskera para padres y madres

¿No sabes sustenta y te gustaría aprender un poco?  
¿Sabes un poco de euskera, pero quieres mejorar tu nivel?  
Euskaraz badakizu, baina gehiago ikasi nahi duzue?  
Bereko zaurtzak argitu eta akatsak zuzendu nahi dituzue?

Astean 2 egun, 86 € konturatu orain.  
Epeka ordain daiteke.  
Kontuak dituzaguz.  
2 días a la semana, 96 € curso completo.  
Posibilidad de pagar a plazos.  
Consultar ayudas.  
Informazio gehiago? Más información:  
Euskara Zerbizua:  
euskara@eibarko.uz / 943708426

**EPEA:** 2022ko urritik 2023ko maiatzera

**GASTUA:** Deskontuen zenbatekoa kanpaina berezien fitxan dago sartuta.

**BALORAZIOA:** Kanpaina hau egiten den 7. ikasturtea da eta 32 gurasok eman dute izena eta 2 talde osatu dira. Saioak Portalean ematen dira.

Ikasturte honetan ere talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako gurasoak egon dira, eta taldea aukeratzeko erabili den irizpidea, eguna, orduategia, maila izan dira.

Saioak Portalean izatea auzo batzuetako gurasoentzako eragozpena izan da, ikastetxetik urrun gelditzen baitzitzaien.

Ikastaro hauen bitartez gurasoek euskara ikasteaz gain, euren seme-alaben aurrean hizkuntzari dagokionean izan beharreko jarrera egokiak ere landu dira, baita gurasoentzat oso praktikoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere, esaterako nola lagundu etxeko lanekin.

## EUSKALTEGIEN LEHIAKETA: MEZU EZKUTUAK LEHIAKETA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak euskaltegi biekin lankidetzan MEZU EZKUTUAK lehiaketa antolatu du. Sari bat epaimahaiak emandakoa eta bestea webean boto gehien jaso dituenarentzat izaten da. Lehiaketa irekia izaten da eta edonork har dezake parte.



**EPEA:** 2022ko otsaila-martxoa

**GASTUA:** Coliseorako eta Armagintza museorako 4 sarrera.


**BALORAZIOA:** Lehiaketan 29 mezu ezkutu jaso ziren. Eta mezuak asmatzen 23 lagunek hartu zuten parte. Mezu ezkutu irabazlea honako hau izan zen: hl dnn dn mn t zn zn dnn hl dn. (ahal danian dena eman eta ezin danian ahal dena.)

hl dnn dn mn t zn  
dnn hl dn

Ahal danian  
dena eman  
eta  
ezin danian  
ahal dena.

## MULTIKIROLAK 2021-2022

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak ikastetxeekin eta Kirol Patronatoarekin lankidetzan Multikirolak egitasmoa bideratzen du. Euskara zerbitzutik egitasmoa burutzeko kirol monitoreen enpresa baten kontratazioan parte hartzen da, kirol jarduerak euskaraz izan daitezzen eta begiraleek euskararen erabileraren neurketa egin eta erabilera sustatu dezaten umeen artean eta baita partidetan kirol klubetatik datozen epaile eta adituen artean.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** 3.993 €

**BALORAZIOA:** Ikastetxe guztietako umeei hartu dute parte. Denboraldi honetan umeen partaidetza behera egin du. Guztira 507 umek hartu dute parte, umeen % 50 inguruk hartu du parte egitasmoan. 268 benjaminek hartu dute parte, 86 neska. 239 alebinak izan dira eta horietatik 58 neska.


Euskararen erabileraren neurketa egin da SLKak prestatutako programa baten bitartez. Neurketak eskubaloian eta errugbian egin dira eta emaitzak honako hauek izan dira:

Euskararen erabilera: guztira 52,4 umeen artean %53,5, entrenatzaileek %55,2, jokozainek %40,4, ikusle haurrek %51,6 eta ikusle helduek %51,2



## TRANSMISIO MINTEGIA

**DESKRIBAPENA:** ...eta Kitto! Euskara Elkartek antolatzen du Udalaren babesarekin. Goiz osoko mintegia euskararen transmisioari buruzko hizlariekin eta mahai inguruarekin Euskal Herri osoko euskara teknikari, irakasle, aisialdiko begiraleei zuzendua. Aurtengoa aurrez aurre izan da Armeria Eskolako Aretoan eta streaming bidez eman da.



**EPEA:** 2022ko martxoaren 16a, asteazkena, 8:45-14:30

**GASTUA:** 1.000 €

**BALORAZIOA:** Goiz osoko egitarauan 5 hitzaldi eman dira. 109 lagunek eman zuten izena, horietatik 43k aurrez aurre jarraitu zuten mintegia eta 66k, berriz, streaming bidez.

Parte-hartzaileen tipologiari dagokionez, askotarikoak izan dira: udaletako euskara teknikariak, euskara elkarteetako teknikariak, LH, DBH, Lanbide Heziketa, Batxilergo zein Unibertsitateko irakasleak, Iraleko formatzaileak, aisialdiko begiraleak, ...eta kitto!ko bazkideak...



## MERKATARITZA LAN-MAHAIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto! Euskara elkarteak, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera lankidetzan egitasmoak eta kanpainak aurrera ateratzeko lan-mahaia da.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Orohar mahaia osatzen duten alderdi guztiek oso positiboki baloratu dute lankidetzak.

Guztira urtean 8 bilera egin dira:

2022/01/17, 2022/02/07, 2022/03/14, 2022/04/14, 2022/06/06, 2022/09/19,  
2022/10/17 eta 2022/11/09



## ESKATU EUSKARAZ ESKAINI EUSKARA KOMUNIKAZIO KANPAINA

**DESKRIBAPENA:** Eusko Jaurlaritzak sustatutako kanpaina izan da. Eibarko Udaleko Euskara zerbitzuak, Garapen ekonomikoa, Eta kitto, EMGI eta ostalarien elkartearekin batera komunikazio kanpaina burutuko dute.



**EPEA:** 2022 abendua - 2023 urtarrila

**GASTUA:** Euskara Zerbitzuak 536 € jarri ditu. Gainerakoa Garapen Ekonomikoak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta EMGIk jarri dute.

**BALORAZIOA:** Udalaren aldetik kalean banderolak jarri dira eta euskarazko astekariak iragarkiak ere jarri dira. Horretaz gain herriko prentsak eta bereziki Eta kitto astekariak kanpainari kobertura egokia eman diote. Horretaz gain ...eta kitto!-k Udalaren babesarekin bideratzen duen Euskaraz Primeran egitasmoaren bidez merkataritza guztiei kanpainaren berri eman zaie eta oso harrera ona izan du. EMGIk ere bere bazkide guztiei kanpainaren berri eman die eta kanpainaren zabalkundea egiten lagundu du. Lan-taldeak baloratu du kanpainaren irudia ez dela oso egokia izan bertako, gertuko eta euskaraz eskaini/eskatu ideia sustatzeko.



## UEU DIRULAGUNTZA DEIALDIA

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak UEUn ikastaroak egiten dituzten eibartarrei eta baldintzak betetzen dituztenei matrikularen %50ari dagokion dirulaguntza ematen diete.

Ikastaro hori indarrean dagoen ikasturtean egindakoa izan behar da.

**Dirulaguntza jaso ahal izateko ikastaroa 2021/09/01 eta 2022/07/31 bitartean egindakoa izan behar da.**



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2022/09/30

**GASTUA:** 0 €

**BALORAZIOA:** Ez da eskaerarik egon.

## EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (1)

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak Eibarren euskararen berreskurapenerako lanean diharduten elkarteekin dirulaguntza izendunak ditu. Dirulaguntza bi zatitan ordaintzen da, %60 hitzarmena sinatzen denean eta %40 zuriaketa aurkeztu eta ontzat eman ondoren.

**Eibarko AEK 24.900 €**

Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea. Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.



**Eta Kitto Astekaria 100.041 €**


Eta kitto astekaria argitaratzea. Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea.

**Eta Kitto Berbetan 50.908 €**

Berbetan egitasmoa burutzea Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea. Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.



**Eta kitto Txikitto 13.500 €**



Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea.



## EUSKARA DIRULAGUNTZA IZENDUNAK (2)

### Eta Kitto Tailerrak eta hitzaldiak 5.000 €

Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea. Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea. Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.




### Etta Kitto Ongi etorri Berbetanera 17.430 €

Kanpoko jatorria duten eibartarrak euskarara eta euskal kulturara gerturatzea elkarbizitza hobetzeko.

### Badihardugu 1.386€

Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea.



### Hankamotxak Bertso Eskola



### Hankamotxak Bertso Eskola 3.235€

Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea. Eibarko ume eta gaztetxoaren artean bertsozaletasuna handitzea.

**EPEA:** 2022

**GASTUA:** 216.400 €

**BALORAZIOA:** Elkarteek egindako gastuen zuriak aurkeztu dute eta ontzat eman da.

## DIRULAGUNTZA ERROTULUAK EUSKARAZ

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udalak dirulaguntza deialdia kaleratu du Eibarren dauden edo irekiko diren merkataritza establezimenduetako errotuluak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz jartzen laguntzeko.

EPEA: 2022

LANKIDEAK:

Eibar Merkataritza Cune Irekia

...eta Kitto! Euskara Elkarte



**ESKAERA EGITEKO EPEA:** 2021/11/13-2022/11/11

**GASTUA:** 696,18 €

**BALORAZIOA:** Guztira 3 eskaera egon dira eta denek baldintzak betetzen zituztenez, jaso dute zegokien dirulaguntza. Honela banatu dira dirulaguntzak:

<b>ERROTULU NAGUSIA</b>	<b>261,60 €</b>
<b>FINKOA:</b>	<b>250,70 €</b>
<b>ELEMENTUAK:</b>	<b>183,88 €</b>
<b>GUZTIRA:</b>	<b>696,18 €</b>

## EIBARKO EUSKARA .EUS

**DESKRIBAPENA:** Euskara zerbitzuak KAM enpresaren bidez www.eibarko-euskara.eus web gunea kudeatzen du. Bertan Eibarko euskara hiztegia, argitalpenak eta Eibarko euskararen lotura duten egitasmoak daude jasota.



**GASTUA:** 759 €

**BALORAZIOA:** 2022an 25.172 bisita izan ditu eta 11.467 erabiltzaile. Momentu honetan gunea hau gehien bat Eibarko Euskara Hiztegia on line mantentzeko da.



# Eibarren **AKEBAI**



## AKEKIDEEN BATZARRA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAI Batzarra Akekideek osatzen dute eta plataformaren erabakigune nagusia da. Ekipoak deituko du, gutxienez urtean birritan. AKEBAI Batzarraren egitekoak dira Ekipoak egindako urteroko kudeaketa plana onartzea, eta AKEBAIren jardunaz hausnartu eta proposamenak egitea.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Aurreko urtean bezala, bizi dugun egoeratik, batzarrik ez egitea pentsatu du Ekipoak.



## EKIPOA

**DESKRIBAPENA:** Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzeko sortu zen Eibarren AKEBAI plataformak duen talde eragilea da. Nahiz eta kide batzuk bi urtez behin edo/eta urtetik urtera aldatu (euskaltegietakoak eta Euskara Batzordeko zinegotziak), Ekipoaren osaera finkatuta dago. Oro har, urteko kudeaketa planaz eta aurrekontuaz arduratzen da. Dagozkion egitekoak araudian daude zehaztuta. Gutxienez, hilean behin batzartuko da.



**EPEA:** 2022

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Ekipoa urteko aurrekontua eta plana egiteaz arduratu da, eta adostutako ekintza eta egitasmoak bideratu eta horien jarraipena eta zabalkundea egin du urtean zehar. Ekipoako kideak ekintza-taldeetan banatuta aritu dira, AKEBAIko beste kide eta eragile batzuen lankidetzarekin, egitasmoak aurrera eramaten.

Partaideak izan dira:

Udaleko euskara teknikaria, ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizatzailea, AEK Euskaltegiko ordezkaria, Udaleko Euskara Batzordeko zinegotzia (txandaka), Akekide boluntario bat, eta koordinatzailea. 6 kide izan ditu Ekipoak 2022an.


14 bilera egin ditu Ekipoak urtean zehar; denak telematikoak:

2022/01/10, 2022/01/24, 2022/01/31, 2022/02/21, 2022/03/14, 2022/04/05, 2022/05/02, 2022/06/06, 2022/06/28, 2022/07/07, 2022/07/15, 2022/09/12, 2022/10/06 eta 2022/11/14

Bileretan elkartzeaz gain, Ekipoako kideek emailaz, Whatsappez eta Driven bitartez egin dute harremana eta lana. Ekintza-talde bakoitzak bere martxa eta funtzionatzeko era izan du, zegokion ekintza bideratu eta burutzeko.

## SUPER AKEAK

**DESKRIBAPENA:** LH 2. mailan landuko da egitasmoa. Euskarri ezberdinak erabiliz (komikia, mahai-jokoa, bideoak, abestia-koreografia,...) euskararen inguruko hainbat portaera jarriko dira agerian, eta umeez egindako lanketa horren bitartez inpaktua sortuko da gurasoengan. Horrez gain, umeez mezu bat jasoko dute: euskarak osoago eta zorientsuago egingo dituela. AKEk, etorkizunetik datorren pertsonaiak, misio bat jarriko die: umeez, super heroi bihurtuta (Super Akeak), Eibar hobea egiten lagunduko diote: garbiagoa, euskaldunagoa,... Bide horretan hainbat erronka gainditu beharko dituzte, balio ezberdinak landuz (euskararen erabilera, genero berdintasuna, aniztasuna, ekologia...).



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** Materiala, euskarriak: 6.989 €

**BALORAZIOA:** 2021-2022 ikasturtean egitasmoa berriz martxan jarri da.

2019-2020 ikasturtean abiatu zen lehenengoz egitasmoa, baina COVIDak sortutako egoeratik ezin izan zen behar bezala burutu. 2020-2021ean ere ez zen egoki ikusi martxan jartzea. 2021eko maiatzean, LHko ikastetxeen mahaian, berriz azaldu zen egitasmoa, eta hurrengo ikasturtean martxan jartzea proposatu zen. LHko ikastetxe guztiak prest azaldu ziren egitasmoan parte hartzeko. Ondoren, LH2ko tutoreekin bilera egin ziren, ekainean eta azaroan, egitasmoa burutzeko egin behar diren ekintzak azaltzeko eta kronograma adosteko eurekin. Ikasleek erronkak gainditzeko beharko dituzten materialak eta euskarriak ere prestatu dira (txapak, komikiak, mahai-jokoa...). 2022ko urtarriletik ekainera bitartean burutuko da egitasmoa. Ikastetxeen eta familien balorazioa oso ona izan da.

## IRAKASLEENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarren AKEBAIK ikasturte hasieran sentsibilizazio saioak eskainiko dizkie Eibarko DBH eta Batxilergoko ikastetxe guztietako irakasleei. Hizkuntzaren erronkan lagungarri izango zaizkien baliabideak eskaintzea da saio hauen helburua.



**EPEA:** 2022ko irailak-azaroa bitartean

**GASTUA:** Barne baliabideak 2.240 €

**BALORAZIOA:** Ikasturteari indartsu eta motibatuta ekiteko, irakasleentzako mintegia antolatu du Eibarren AKEBAIK: "Erabileraren ontzia bete", EBETEK eskainia.

EBETEko irakasleek euskararen erabileran eragiteko estrategiak azaldu dizkiete Eibarko ikastetxeetako DBH eta Batxilergoko irakasleei. Ikastetxe bakoitzak lau orduko ikastaroa izan da, bi egunetan banatuta; Eibarko DBH eta Batxilergoko hiru ikastetxeetako klustroek hartu dute parte; 148 irakasle izan dira guztira parte hartu dutenak.

## KIROL KLUBENTZAKO MOTIBAZIO SAIOAK

**DESKRIBAPENA:** Haur eta gazteen kirol jarduerak euskalduntzeko helburuarekin, Udalak eta SD Eibarrek ematen dituzten dirulaguntzak jasotzeko baldintzetan euskara irizpidea txertatu da. Klubek euren egoerara egokitutako euskara plana egingo dute, urtekoa, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.

Euskara plana egin duten kirol klubekin harremana egingo du AKEBAIk, laguntza eskaintzeko eta eurentzat egokitutako sensibilizazio saioan parte hartzera gonbidatzeko.



**EPEA:** 2022ko maiatzaren 17an

**GASTUA:** Hizlariak 465 €

**BALORAZIOA:** Maiatzaren 17an, kirolean kalitatea eta euskara sustatzeko saioa izan zen Armeria Eskolan, AKEBAIk antolatua.

Ahize AEKren bidez Eusliderrak kirolean egitasmoa martxan jarri nahi da 2023 urtera begira.

Eibarko 9 kirol talde bildu ziren bertan: Urki FT, Eibarko Urbat IKE, Ipurua Gimnasia Ritmica, Eibar Igerixan Kirol Kluba, Eibartarrak FT, Eibar Eskubaloia, Eibar Rugby Taldea, Judo Klub Kalamua eta Eibar Triatloi Taldea.

Giro polita sortu zen kideen artean, eta kezkak kezka eta eragozpenak eragozpen, euskararen aldeko apustuan jarraituko dutela adierazi zuten.

## HAMAICA BERBALDI

**DESKRIBAPENA:** "Hamaika berbaldi" egitasmoaren helburuak honako hauek dira: herritarrak aktibatzea, hizkuntza eskubideak ezagutaraztea, euskaldunok ahalduntzea, euskararen aldeko diskurtsoa berritzea, euskal kultura eta euskalduntasuna sustatzea... eta herriko eragileekin harremanetan jarri eta lankidetzan aritzea.



**EPEA:** 2022ko maiatzaren 5ean eta ekainaren 22an

**GASTUA:** 1.263 €

**BALORAZIOA:** Hamaika berbaldi egitasmoaren barruan, UEUrekin lankidetzan Irudiz eta euskaraz liburuaren aurkezpena egin zen Josu Martinez eta Begoña del Tesorekin Coliseoan. Juan San Martinen mendeurrenako egitarauaren barruan Euskaltzaindiaren bilkura Eibarren egin zen eta bi saio ireki ere, Luis Aranberri Amatiñok "Sorlekutik sorlekura" hitzaldia eta Jabier Kaltzakortak "Juan San Martinen gatzetako lanak: Zirikadak eta Eztenkadak" hitzaldia, izan ziren. <https://youtu.be/Q2ZLxJzrqbs>

## HIZKUNTZA-ERABILERAREN KALE NEURKETA

**DESKRIBAPENA:** Soziolinguistika klusterrak Eibarko kaleetako hizkuntza-erabileraren neurketa egingo du. 2016an ere egin zuen, Eibarko Hiria Euskararen Plan Estrategikoa martxan jarri zen urtean. Asmoa da 5 urtetik behin egitea.



**EPEA:** 2022ko abenduaren 2a.

**GASTUA:** Soziolinguistika klusterra 3.432 € neurketaren bigarren zatia eta aurkezpen hitzaldia 1.633,50 €

**BALORAZIOA:** 2022an Soziolinguistika Klusterra Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa ikerketaren emaitza jaso da.

Datu horien aurkezpen hitaldia abenduaren 2an egin d herriko eragileen aurrean.

## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA

**DESCRIPCIÓN:** Eibarren AKEBAIk errenta aitortpena euskaraz egiteko publizitate kanpaina egingo du. Helburua da aitortpena euskaraz egiten duten eibartarren kopurua igotzea. Kanpaina eta kitto! astekarian, webgunean, sare sozialetan eta herriko hedabideetan egingo da.



**EPEA:** 2022ko martxo-ekaina

**GASTUA:** Publizitatea herri aldizkarian: 1.026,09€

**BALORAZIOA:** Kanpainan erabili den leloa honako hau izan da: "**Errenta aitortpena? Duda barik, EUSKARAZ!**"

Aurreikusita zegoen bezala, martxoaren 25ean ...eta kitto! aldizkariaren azalean faldoia jarri zen; beste hiru aletan apirilaren 16an, maiatzaren 7an eta 21ean 8 moduluko iragarkia.

Horrez gain, gaiari buruzko erreportajea egin da astekarian eta herritarren iritziak/testigantzak ere jaso dira.

Udalaren webgunean eta sare sozialetan ere eman da kanpainaren berri.

Aurreko ekitaldian 1.441 eibartarrek egin zuten aitortpena euskaraz, 14.156tik (% 10,18).

**Helburua** da aurten gutxienez **1.500** izatea.

## HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAIren asmoa da herritarrei hizkuntza eskubideen berri ematea modu argian: ordenantza, dekretu berria, erabiltzaile-kontsumitzaileen dekretua... Horrekin batera, zalantzak argitzeko, hizkuntza eskubideen urraketen berri emateko eta horiek bideratzeko kanala sortuko da.



**EPEA:** 2022

**BALORAZIOA:** Eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza-eskubideen inguruan izan ditzaketen zalantzak, kezkak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala sortu dugu; bertokoa, gertukoa, herrikoa: "ASTINDU Eibar" hizkuntza eskubideen ataria. Herritarren aldetik 2 ekarpen iritsi dira Astindura, eta bakoitzari zegokion eran kudeatu ditugu.



## EUSKARALDIA 1/2

**DESKRIBAPENA:** Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak abiatutako ekimen hau Euskal Herri osoan gauzatu da 2018an eta 2020an. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatzea da dinamikaren helburua; euskaltzaleak aktibatu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

Hirugarren edizioa 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egin da. Aurreko dinamika izanago da eredu: ahobizi / belarriprest eta ariguneak.



## EUSKARALDIA 2/2

**DESKRIBAPENA:** 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra.

**GASTUA:**

**BALORAZIOA:** Euskaraldiaren 3. edizioari begira dinamizatzailer bat aritu da 3 hilabetez euskaraldia dinamizatzen herrian.

Izen-ematea ez da izan aurreko edizioetan baino handiago, baina aurrekoetan baino txapa gehiago ikusi dira kaleetan.





## EUSKARA EIBARTAR GUZTIONA BANDOA

**DESKRIBAPENA:** AKEBAIk “Euskaraz eta kitto” bandoaren urteurrena zela eta, bando berri bat kaleratzeko proposamena egin zion alkateari. Bando berria hiriko peora guztietan jarrita zegoen abenduaren 20 goizerako. Eguerdian udaletxeko pleno aretoan Bando berriaren irakurketa egin zen, bandoan jasotzen diren hizkuntzetako jatorrizko hiztunekin.



**EPEA:** 2022ko abenduaren 20a

**BALORAZIOA:** Bandoaren irakurketa publikoan duela 40 urteko bandoa kaleratu zutenak ere egon ziren eta irakurle berriak eta ikastetxeetako jendea ere bai. Bandoak medioetan ere jarraipen ona izan du. <https://www.eibar.eus/eu/bideoak/201c-euskaraz-eta-kitto-bandoren-40-urteurrena>.

## KORRIKA

**DESKRIBAPENA:** Korrika, euskararen alde Euskal Herrian zehar lasterka egiten den martxa, AEK euskaltegi elkarteak antolatua, aurten apirilaren 1ean pasatu da Eibartik. Herriko beste elkarte, erakunde eta talde askok bezala, Eibarko Udalak eta AKEBAI plataformak ere Korrikan parte hartu dute, Korrika eginez eta baita Hautsi da Anphora emanaldia programatuta Coliseoan.



**EPEA:** 2022ko martxo-apirila

**GASTUA:** 1.794,26 €

**BALORAZIOA:** Korrikaren egunean espero bezala herriaren erantzuna oso ona izan da eta Coliseoko emanaldian ere jendetza bildu zen

[https://www.eibar.eus/eu/kultura/agenda/hautsi-da-anphora-ruper-ordorika?set\\_language=eu](https://www.eibar.eus/eu/kultura/agenda/hautsi-da-anphora-ruper-ordorika?set_language=eu)

## TANTANEZ TANTAN

**DESKRIBAPENA:** TANTANEZ TANTAN bi urtetik behin Eibarko Euskaigintzak antolatzen duen giza katea da. Urez betetako gantxila eskuz esku eramaten da Untzagaraino, euskararen olatua irudikatuz.



**EPEA:** 2022ko maiatzaren 21a

**BALORAZIOA:** Eguraldia lagun jende asko elkartu zen ibilbide osoan. Giroten txaranga, hanpaloak SuperAkeak ere izan ziren. Herriko elkarte eta erakunde gehienek hartu zuten parte ibilbidearen zatiren batean. Lotura honetan ikus daiteke eunak emandakoa <https://etakitto.eus/berriak/euskara/argazki-bilduma-tantanez-tantan-euskararen-olatuak-busti-zuen-eibar.html>



# UDAL EUSKALTEGIA



## EUSKALTEGIKO PLANTILA

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegioko plantila 10 lagunez osatuta dago: 9 irakasle-normalizatzaile eta administrari bat. 2021/2022 ikasturtean, 4 irakasle-normalizatzaile jardun osoan aritu dira klaseak ematen; idazkari akademikoak eta zuzendariak, berriz, lan jardunaren erdia karguei dagozkien lanekin bete dute, eta gainontzekoa irakasle lanetan eman dute. Beste bi irakasle kontratatu behar izan ditugu sortutako taldeei aurre egiteko: bata irakasle baten bajaldia betetzeko jardun osoan aritu zen urrian eta azaroan, plazaduna inkorporatu arte; bestea jardun erdiz urritik ekinera bitartean.

Irakasle bat normalizatzaile lanetan aritu da Euskara zerbitzuan, beste batek Euskararen Plan Estrategikoaren dinamizatzaile lanetan jardun du, hirugarren bat Pertsonal sailean zerbitzu eginkizunetan, eta laugarrena itzultzaile lanak egiten udalean.

<b>Zuzendaria</b>	<b>Euskaltegian</b>
<b>Idazkari Akademikoa</b>	<b>Euskaltegian</b>
<b>4 Irakasle-normalizatzaile</b>	<b>Euskaltegian</b>
<b>4 Irakasle-normalizatzaile</b>	<b>Euskara Zerbitzuan</b>
<b>2 irakasle aldi baterako kontratatuta</b>	<b>Euskaltegian</b>
<b>Administraria</b>	<b>Euskaltegian</b>



**EPEA:** 2021 - 2022 ikasturtea

**GASTUA:** 536.203,85 €

**BALORAZIOA:** Esan bezala, bi irakasle kontratatu ditugu, baina horietako bat baja betetzeko baino ez da izan. Jardun erdiz egon den irakaslearena, berriz, eskaerari aurre egin ahal izateko beharra izan da, gainontzekoon jarduna beteta baitzegoen.





## EUSKALTEGIAREN ESKAINTZA

**IDESKRIBAPENA:** Eibarko Udal Euskaltegiak eskaintzen duen zerbitzua 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Europar Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezarritako maila guztiak eskaintzen ditu, hau da, A1etik hasita C2ra arte, goizez eta arratsalde/iluntzeko ordutegietan.

Neguko ikastaroan, Klaseak aurrez aurre eta autoikaskuntza bidezkoak izan daitezke. Aurrez aurrekoen artean hainbat modulu eskaintzen ditugu: astean 10 ordukoa astelehenetik ostegunera; astean bitan 2,5 orduko saioetan (C1 mailan); astean 8 ordu (C2 mailan); ikastaro trinkoak eta 100 edo 60 orduko ikastaroak (xede berezikoak badira).

Autoikaskuntzarako HABEK prestatutako programa erabiltzen da (BOGA), zeina tutoretza eta mintza-saioen bidez osatzen den.

2022ko irailean, estreinakoz, azterketak prestatzera begirako bi talde izan ditugu, C1 eta C2 mailakoak (30 ordukoak).

Uda Ikastaroan, 100 orduko aurrez aurreko klaseak izaten dira.

Ikastaro berezien artean, hauexek eskaintzen dira: etorkinentzako harrera ikastaroa (AISA), Mintza-praktika ikastaroak, jubilatuei zuzendutakoak, gurasoei begirakoak, ikastaroak, enpresetakoak, IRALEkoak...

Azterketa prestakuntza eta HABEko azterketa deialdietara aurkezteko aukera ere eskaintzen da.

2020-2021 ikasturtean, A1 eta A2 mailak egiaztatu ahal izan dira Euskaltegian ebaluazio jarraituaren bitartez.

Euskaltegiak Liburutegi zerbitzua (mailari egokitutako liburuak maileguan) eta Ordenagailu gela (euskara ikasteko Internetek eskaintzen dituen baliabideak) ere erabiltzeko aukera ematen die ikasleei.



### EPEA: 2021-2022 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Maila guztietan izan ditugu taldeak, A1etik B2ra arteko mailetan, gainera, txandaka aritzeko aukera izan dute ikasleek, goizez eta arratsaldez osatu baitira taldeak. Aipatzekoa da C2 mailarako gero eta ikasle gehiagok ematen duela izena. Lehen, taldea osatzeko beharrezkoa zen ikasle kopurua kostata lortzen bagenuen ere, azken bi urteotan, hasiera-hasieratik bete da ratioa. Urrian matrikulatutakoez gain, urtarrilean beste ikasle batek eman zuen izena maila horretako taldean.

Ikasle gehienek aurrez aurreko eskolak aukeratu badituzte ere, autoikaskuntzan 25 ikasle izan ditugu, iaz baino 1 gutxiago.

Ikastaro eta talde berezien artean, hauexek izan ditugu: Gurasoak ere eskolara kanpainatik sortutakoak (talde bakarra, iaz bezala), eta beste bat Unibertsitate Laboralean, 60 ordukoa, euren eskola orduetan txertatuta. Ulersaioak modalitateko ikastaroa ere eman dugu EPAn, baita lehen adierazi bezala, 2. deialdiko azketa prestatzera bideratutako 30 orduko bi kurtsu ere.



## MATRIKULA EPEAK ETA EGUTEGIA

**DESKRIBAPENA:** Ikasturtea bi alditan banatzen da, negu ikastaroa (urria-ekaina) eta uda ikastaroa (ekaina-uztaila). Negu ikastaroaren matrikula-aldi nagusia irailean izaten da, baina urtarrilean berriz zabaltzen da izena emateko epea, hilabetez, eskaerari erantzuteko eta irailean hasitako taldeak osatzeko. Uda ikastaroaren matrikula, ostera, ekainean izaten da. Negu ikastaroa urriaren lehenengo lanegunean hasten da eta San Juan jaien aurreko azken lanegunean amaitzen. Uda ikastaroa San Juan jaiak igaro eta lehenengo lanegunean hasten da eta 20 laneguneko iraupena du.

**2021 - 2022 ikasturteko egutegia**

Iraila 2021	Urria 2021	Azaroa 2021	Abeztua 2021
A A A O D L I	A A A O D L I	A A A O D L I	A A A O D L I
1 2 3 4 5	1 2 3	1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12	4 5 6 7 8 9 10	8 9 10 11 12 13 14	6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19	11 12 13 14 15 16 17	15 16 17 18 19 20 21	13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26	18 19 20 21 22 23 24	22 23 24 25 26 27 28	20 21 22 23 24 25 26 27
27 28 29 30	25 26 27 28 29 30 31	29 30	27 28 29 30 31
Utarrila 2022	Otsola 2022	Martxo 2022	Apirila 2022
A A A O D L I	A A A O D L I	A A A O D L I	A A A O D L I
1 2	1 2 3 4 5 6	1 2 3 4 5 6	1 2 3
3 4 5 6 7 8 9	7 8 9 10 11 12 13	7 8 9 10 11 12 13	4 5 6 7 8 9 10
10 11 12 13 14 15 16	14 15 16 17 18 19 20	14 15 16 17 18 19 20	11 12 13 14 15 16 17
17 18 19 20 21 22 23	21 22 23 24 25 26 27	21 22 23 24 25 26 27	18 19 20 21 22 23 24
24 25 26 27 28 29 30	28	28 29 30 31	25 26 27 28 29 30
31			
Maiatza 2022	Ekerra 2022	Uztaila 2022	Abitua 2022
A A A O D L I	A A A O D L I	A A A O D L I	A A A O D L I
1 2 3 4 5	1 2 3 4 5 6	1 2 3 4 5 6	1 2 3 4 5 6 7
6 7 8 9 10 11 12	7 8 9 10 11 12 13	7 8 9 10 11 12 13	8 9 10 11 12 13 14
13 14 15 16 17 18 19	14 15 16 17 18 19 20	14 15 16 17 18 19 20	15 16 17 18 19 20 21
20 21 22 23 24 25 26	21 22 23 24 25 26 27	21 22 23 24 25 26 27	22 23 24 25 26 27 28
27 28 29 30	27 28 29 30	28 29 30 31	29 30 31
31			

Negu ikastaroa  
Uda ikastaroa

**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**BALORAZIOA:** HABEk ezartzen dituen epeak errespetatu dira eta egutegia bete da. Hala ere, epez kanpo etorri den orori dagoen eskaintza azaldu zaio eta matrikulatzeko aukera eman.



## TASAK ETA TARIFA BEREZIAK

**DESKRIBAPENA:** Eibarko Udal Euskaltegiak euskara ikasteko ezarrita dauzkan prezioak ordaintzeko orduan erraztasunak emate aldera, tarifa bereziak jarri ditu zenbait kolektiborentzat. Ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea tarifa berezi hauetaz baliatzeko. Ikusi **ORDENANTZA FISKALAK** (Udalaren web orrian ikusgai)



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Ikasturte honetan 113 ikasle izan dute tarifa bereziren bat (% 67)

- Aurreko ikasturteko asistentziagatik 8 ikasle (% 4,1)
- DBE-RGI izateagatik: 7 (% 3,6)
- Guraso izateagatik: 29 (% 15)
- Dendari, ostalari edo zerbitzuen sektorekoa izateagatik: 6 (% 3,1)
- 65 urte edo gehiago izateagatik: 4 (% 2,1)
- Langabetua izateagatik: 27 (% 14)
- Ikasle izateagatik: 32 (% 16,6)
- Familia ugaria izateagatik 0 (%0)



## TALDEAK, ORDUAK ETA IKASLE KOPURUA

**DESKRIBAPENA:** 2021/2022 ikasturtean 187 ikasle ibili dira Euskaltegian 15 taldetan banatuta, guztira 28.188 ordu eman dira Neguko eta Uda Ikastaroaren artean.

2021/2022		Talde kopurua	Emandako ordu kopurua	Ikasle kopurua
Negu Ikastaroa	Aurrez aurre	12	25.703	126
	Autoikaskuntzan	1	-	26
Uda Ikastaroa	Aurrez aurre	3	2.485	41

Maita guztiak eman dira:

A1	A2	B1	B2	C1	C2
ONARRIZKO ERABILTZAILEA		ERABILTZAILE AURRERATUA		ERABILTZAILE ADITUA	
Hasierako erabiltzailea	Dinamizko erabiltzailea	Erabiltzaile independentea	Erabiltzaile aurreratua	Erabiltzaile gabua	Erabiltzaile adina
- Talde 2 331 ordukoa	- Talde 1 331 ordukoa	- 1 Talde 331 ordukoa	- 2 talde 331 ordukoak	- talde 1 331 ordukoa	- Talde 1 264 ordukoa
- Talde 1 100 ordukoa (gurakoak)			- Talde 1 (Unibertsitate Laboralean (60 ordu)	- Talde 1 169 ordukoa	- Talde 2 30 ordukoa irailean
- Talde 1 60 ordukoa (Unibertsitate Laboralean)				-100 orduko taldea (Uda) Taldea 1 30 ordukoa irailean	
Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun	Autoikaskun
3	4	3	5	11	-

**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2021-2022 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino 2 ikasle gehiago izan ditugu, 193 hain zuzen ere. Orduei dagokienez, 28.188, iaz baino 481 gutxiago. Aurrez aurreko 15 talde izan ditugu aurten (autoikaskuntzako ikasleekin beste bat konputatzen da HABEren aurrean), iazko kopuru bera. Gurasoak ere eskolara kanpainatik 100 orduko talde bat izan dugu, iaz baino bat gehiago. Unibertsitatean ere izan dugu 60 orduko talde bat eta EPA (Helduentzako eskolan) Ulersaioak modalitateko ikastaroa eman dugu. Irailean azterketak prestatzeko bi talde izan ditugu 30 ordukoak. Taldeetako ratioa apur bat altuagoa da izan da, 11,2koa, iaz baino 2 puntu gehiago.




## IKASLEAREN PROFILA

**DESKRIBAPENA:** 2021-2022 ikasturteko ikaslearen profila ondorengoa da:

SEXUA	
Emakumezkoak	107 (% 55,40)
Gizonezkoak	86 (% 44,50)
IKASKETA MAILA	
Unibertsitate-gradua	65 (% 33,7)
UBI-LHII	66 (% 34,2)
Eskola graduatua	45 (% 23,3)
Beste	17 (% 8,8)

LAN EGOERA	
Lanean edo ikasten	125 (% 64,8)
Langabezian	68 (% 35,2)
ADINA	
16 - 25	62 (% 32)
26 - 35	47 (% 24,4)
36 - 45	36 (% 18,7)
46 - 55	33 (% 17,1)
56 - 65	12 (% 6,2)
>65	3 (% 1,6)



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**BALORAZIOA:** Betiko joerari jarraituta, ikasleen profilari begira, ikasleen erdia baino gehiago emakumezkoak izan dira. Hala ere, orain arateko joera baino parekatuago izan da ikasturte honetan, alegia, alde txikiagoa da sexuen artean. Titulazioari erreparatuta, gehienek goi eta erdi mailako titulazioa dute, eta batez besteko adina 26-35 urtekoa da, orain artekoa baino zertxobait baxuagoa. Langabetuak 68 izan dira, % 35,2, aurrekoan baino askoz gutxiago (iaz % 61ekoa izan zen).



## HABEREN AZTERTZAILEAK

**DESKRIBAPENA:** Urtero HABEk maila egiaztatzeko 2 deialdi egiten ditu, bata maiatzak-ekaina aldera (deialdi itxia) eta bestea urria-azaroa aldera (deialdi itxia zein irekia). Azterketa hauek zaintzeko eta zuzentzeko irakasleak behar izaten ditu. Eibarko Udal Euskaltegiak maila guztietan ditu aztertzaileak. Azterketa deialdi bakoitzaren aurretik Bateratze Saioak antolatzen ditu HABEk eta horietan parte hartzen dute maila guztietako aztertzaileek azterketak zuzentzeko orduan irizpide bateratuak izateko.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Komenigarri irizten diogu maila guztietan aztertzaileak izateari; alde batetik, gure ikasleei irizpideak eta aholkuak emateko eta bestetik, profesionalak garen aldetik, gure lanean etengabe eguneratuak egoteko. HABEren bateratze saioen ondoren, saiatzen gara gure artean, eta denon parte hartzearekin, antzeko saioak egiten, Eibarko Udal Euskaltegiko irakasleok maila guztien ikuspegi orokorra izan dezagun. 2022an zuzendariak hartu zuen erretiroa hartu zuen irakaslearen aztertzailelekukoa, beraz, berriz ere badugu B2ko aztertzailea. B1lekoa bajaran egon denez azarora arte, urtebetez eten egin da haren aztertzaile-lana, baina 23rako eskaera eginda dauka dagoeneko.

Bestalde, 2022ko deialdi bietan IVAPeko estreinakoz aztertzaile aritu da HABEren ere maila berean diharduen irakasle (C2). Hori horrela, erakunde horretako azterketaren gaineko informazioa zehatzagoa izango dugu hemendik aurrera.



## FORMAZIOA

**DESKRIBAPENA:** Udal Euskaltegiko langileek etengabeko formazioa jasotzen dute, besteak beste, euren lana eguneratzeko eta eskabide berriei erantzuteko. Formakuntza hori, gehienetan, didaktika arloan zein administrazio arloan izaten da, beti ere, kontuan hartuta unean uneko beharrak, eskaintzak eta eskabideak zein diren.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**IKASTAROEN ZERRENDA:**

IKASTAROA	ANTOLATZAILE	PARTE-HARTZAILEA
Hizkera ez sexista (Idoia Eizmendi)	Eibarko Udala	2
HEOCaren B2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak (Rakel Fernandez)	HABE	1
HEOCaren C1 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak (Pedro Lakuntza eta Izaskun Agirrezabala)	HABE	2
HEOCaren C2 mailaren egiaztatzailea-Aztertzailegaien bateratze-saioak (Alex Cabello)	HABE	1
IVAPeko 4Herako bateratze-saioa (Susana Jauregiarzo)	IVAP	1
Hizkuntza bitartekaritza, Adolfo Sanchez	HABE	1
Portfolio digitala, Aitzol Astigarraga	HABE	1
Las TIC y audiovisuales en la competencia oral, Lola Torres	HABE	1
Sare sozialak lanean erabiltzeko ikastaroa (Nagore Garcia)	Eibarko Udala	2



## KANPO EKINTZAK (1)

**DESKRIBAPENA:** Kanpo ekintzak dira ikasturtean zehar euskaltegiko jarduna osatzeko asmoz eta ikasleak euskaltegiko esparrutik kanpo euskara entzun eta erabiltzeko helburuarekin egiten diren ekintzak. Batzuk euskaltegiak berak antolatzen ditu, beste batzuk, berriz, Euskara Sailak edo Kultura Sailak eskaintzen dituzte; eta, beste hainbat Eibarko talde eragile batzuek programatutakoak dira. Hilabetez hilabetez eskaintza aztertu egiten da eta ikastaldearen euskara maila kontuan hartuta, proposamena egiten da taldeetan (eskola orduetan izan zein haietatik kanpo). Bestelako ekintzen berri ere eman eta ikasleak animatzen ditugu parte hartzera. Uda ikastaroan ez da kanpo ekintzarik antolatzen.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**GASTUA:** Barne baliabideak

**BALORAZIOA:** Orokorrean ikasleek gustura hartzen dituzte kanpo ekintzak, klasearen egunerokotasunetik irteteko aukera ikusten baitute horrelakoetan. Hala ere, kontuan hartu behar da ikasleen gustuak agintzen duela honetan ere, eta zenbaitetan bultzatu egin behar izaten direla parte har dezaten. Hori horrela, denon satisfazio maila ez da bera izaten. Esan beharrik ez dago guk ezinbesteko ikusten dugula kanpo ekintzak antolatzea, ikasleek euskaltegitik kanpo euskaraz antolatzen denaren berri izan dezaten, batetik; bestetik, giro euskaldunean murgil daitezten.

Taulan aipatutakoez gain, hilabetero jartzen da euskaltegiko ohar-taulan hilabeterako antolatutako ekintzen agenda.





## KANPO EKINTZAK (2)



### EKINTZEN ZERRENDA:

<b>2021eko IRAILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• BERBETAN egitasmoaren jaialdia Untzaga plazan</li> </ul>
<b>2021eko AZAROA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaztaiñerre (argazki-lehiaketa, pastak)</li> <li>• BERBETAN programaren aurkezpena</li> <li>• EUSKARALDIaren aurkezpena</li> <li>• Antzerkia: Kopaz kopa</li> </ul>
<b>2021eko ABENDUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gabonetako otarra</li> <li>• Euskararen eguna: Euskarak zer iradokitzen dizu?</li> </ul>
<b>2022ko URTARRILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehendakariagaiak antzezlanak</li> </ul>
<b>2022ko OTSAILA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu ezkuatuak (AEK eta Udalarekin batera)</li> <li>• San Blas opilak Portaleko sukaldean</li> <li>• "Behe mailako ikasleen errezetak, trikimailuak, aholkuak... Euskaltegiko hormetan, eta IKASBIL HABEren dokumentu-biltegian.</li> <li>• Factoring azoka (behe mailako ikasleekin erosketak)</li> <li>• Berbetan programaren aurkezpena.</li> </ul>
<b>2022ko MARTXOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki Jrdunaldiak: Zintzilik, Ama, Tarara, Semea pixka bat motelako dabil soilik.</li> <li>• Erakusketa: Berdintasunerako bide luzea: Euskadiko emakumeak XX. mendean.</li> </ul>
<b>2022ko APIRILA-EKAINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Armagintza museora bisita.</li> <li>• Nutrizio tailerra Farmacooken</li> <li>• Dantza ikastaroa.</li> <li>• Tantan ezkararen aldeko ekitaldia.</li> <li>• Euskaraldiaren aurkezpena.</li> <li>• Eibarko artxiboaren argazki-erakusketa.</li> </ul>



## LIBURUTEGI ZERBITZUA

**DESKRIBAPENA:** Euskaltegiak ikasleen eskura jartzen du liburuen mailegu-zerbitzua. Euskaltegian matrikulatuta dagoen ikasle orok du zerbitzu hau erabiltzeko aukera. Ikasleak liburua aukeratzen du, batzuetan irakasleak gomendatuta eta beste batzuetan bere gustuz, eta dagokion fitxa bete ondoren etxera eraman dezake. Liburua bueltatzeko epea 2 hilabetekoa da. Eskaintzen diren liburu gehienak eleberriak dira; izan ere, hauek dira errazen irakurtzen dituztenak. Urtero liburu berriak erosten dira, argitaletxeen nobedadeak ikusi eta gero edota irakasle edo ikasleren batek gomendatuta.



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea


**GASTUA:** 672,93 €

**BALORAZIOA:** Ikasleek eskertzen dute zerbitzu hau; izan ere, Udal Liburutegiak liburuak irakurtzeko eskaintzen dien epea motza da ikasle askorentzat. Eta gainera liburu askok, liburu barruan, ikasleen iritzia dute idatzita. 148 aldiz erabili da mailegu zerbitzu hau.



## EGIAZTATZEGINTZA

**DESKRIBAPENA:** A1 eta A2 mailak ebaluazio jarraituaren bidez egiaztatzen dira. Horretarako, ikasleek euskaltegian maila emateaz gain, beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte (gutxieneko asistentzia, laginak jasotzea...). B1, B2, C1 eta C2 mailetan, berriz, maila egiaztatzeko ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu behar izaten dira. Euskaltegietako ikasleek, baldintza batzuk betez gero, HABEren deialdi itxietara aurkezteko aukera izaten dute, baina badaude beste aukera batzuk maila egiaztatzeko, besteak beste, HABEren deialdi librea, Hizkuntza Eskolako azterketak, IVAPEkoak...



**EPEA:** 2021-2022 ikasturtea

**BALORAZIOA:** 2021eko 2. deialdiko HABEko azterketen emaitzak batez besteko orokorrak baino hobekak izan ziren maila guztietan; 2022ko 1. deialdian B1 mailan baxuagoa izan da gainditu kopurua (batzuk ez dira ahozkoa aurkeztu beste azterketaren bat gainditu dutelako), C1 mailan batez bestekoa baino baxuagoa izan da gaindituen kopurua, baina B2 eta C2 mailetan zertxobait altuxeagoa. 2021eko 2. deialdian 33 ikasle aurkeztu ziren HABEko azterketaren batera, eta 15ek lortu zuten behar zuten agiria (% 45,45ek). 2022ko 1. deialdian, berriz, 46 ikasle aurkeztu dira, eta 25ek lortu dute agiriren bat (% 54,3k). Badira IVAPEko, IRALEko eta HEko deialdietara ere aurkeztu direnak eta horietatik beste 5ek lortu dute behar zuten maila gainditzea. Aurten A1 eta A2 mailak egiaztatu dira ebaluazio jarraituaren bidez. Maila gainditzeaz gain, beharrezkoa izan da % 75eko asistentzia eta ebaluazio laginak (diagnosia, tarteko jarduerak eta ikastaro bukaerakoa) jasota izatea. Baldintza horiek beteta, A1 maila 10 ikaslek lortu dute (% 50ek) eta A2 maila beste 10ek (% 55,5ek).



